

## **HEZKUNTZA-PROIEKTUA**

### **AURKIBIDEA:**

#### **1. Ikastetxearen eta ingurunearen analisisa**

1.1.- Ikastetxearen ezaugarriak

1.2.- Hezkuntza-komunitatearen ezaugarriak

1.3.- Ikastetxearen barne-analisisa

#### **2. Gure hezkuntza-komunitatearen printzipioak:**

#### **3. Helburuak**

#### **4. Lerro pedagogikoa**

# **IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA (IHP)**

## **1. Ikastetxearen eta ingurunearen analisisa**

Irungo hirian azkeneko urteetan eboluzio demografikoa modu garrantzitsuan aldatzen ari da. Herrialde desberdinetatik herritar berriak iritsi dira eta gure komunitatearen kide bihurtu dira. Banaketa ez da Irungo hiriko auzo desberdinetan modu uniformearen egin.

Aurrekoari eutsiz, Dunboa LH Eskola Komunitatea azkeneko urte hauetan modu esangarrian aldatu da, gure eraginpean dagoen gunean kontzentratzen baita halako eboluzio demografiko gehiena.

Horregatik, gure Komunitatea errealitate horri moldatuz joan zaio. Trebatu egin da eta talde desberdinen partaidetza eskatu da, aldaketa hori barneratu eta gure Komunitatea osatzen duten kultur errealitate guztiak integratzearen mekanismoak garatzeko.

Urtez urte gure Komunitateko familien ezaugarriak aldatuz doaz, beraz, ikasturte bakoitzeko errealitatearen arabera, Ikastetxearen Urteko Planean ikasturte horretarako ezarritako helburuak garatzen laguntzeko jarduera-lerro pedagogikoa eta taldeen partaidetza zehaztu behar dira.

### **1.1.- Ikastetxearen ezaugarriak**

Dunboa L.H. ikastetxea eskola publikoa da eta Irungo hirian, zehatz-mehatz esanda, Dunboa auzoan, kokatuta dago. Ikastetxea inguruneke zenbait herri-ikastetxe (Behobia, Gazteluzahar, Santa Elena) elkartzearen ondorioz eratu zen.

Horri azken urteetan gure eskualdean izandako aldaketa ekonomiko eta soziala eransten badiogu, gure eskola-komunitatearen ezaugarriak aldatu dira eta une honetan ikasleek aniztasun handia dute, 1.2. puntuan ikus daitekeen bezala.

Ikastetxeak esparru berdinen barruan bi eraikin ditu:

- Haur Hezkuntzarako eraikina: bertan 2 eta 3 urteko ikasleentzat ikasgelak kokatzen dira.

- Lehen Hezkuntzako eraikina: 1.etik 6. mailarako ikasleak izateaz gain, 4 eta 5 urteko ikasleak daude.

Eraikinaren inguruan patio zabalak daude eta eskolaz kanpoko orduetan eskatzen duten taldeek edo pertsonak erabiltzeko eta horietaz gozatzeko irekiak uzten dira, aldez aurretik, baimena idatziz eskatuz gero.

*Zerbitzuak:*

*Gimnasioa, psikomotrizitate-gela, jangela, liburutegia, ordenagailuen gela... aurki daitezke, ikastetxeko kide guztiek erabil ditzaten. Erabilera jasotako beharrak antolatuz kudeatzen da eta ordutegiak erabiltzaile guztiek ezagutzen dituzte. Herriko talderen batek hauen erabilpenerako, aldez aurretik, baimena idatziz eskatu beharko luke.*

## **1.2.- Hezkuntza-komunitatearen ezaugarriak**

Klaustroa 39 irakaslek osatzen dute. Banaketa ondorengoa da:

- 21 tutore
- Aholkulari bat
- 2 HSI (hizkuntza sendotzea)
- 2 PT (pedagogia terapeutikoa)
- 5 irakasle, musikan, hezkuntza fisikoan, ingelesean eta erlijioan adituak
- Liburutegi-lanetarako irakasle bat
- ...

Ikastetxeak garraioa du eta klaseetako ordutegiak, jangelakoak eta eskolaz kanpoko jarduerenak ikastetxean egiten diren jardueretan ikasleen eta senitartekoen partaidetza sustatzeko antolatzen dira. Xede hauek kontuan hartuta, irakasleek, monitoreek, jangela-hezitzaileek eta beste erakunde batzuek beren lana eskaintzen dute.

Ikasleen % 25, gutxi gora behera, iritsi berria, hau da, etorkina da. Azkeneko urteetan ikasle-mota hori nabarmenki hazi da eta ohizko denboraldian nahiz ohiz kanpokoan eskolatzen da. Gorabehera hori dela-eta, gure ikastetxean hezkuntza-behar berriak sortu dira, besteak beste, hurrengo faktoreen ondorioz: kulturen arteko ikuspegia hezkuntza-prozesuari eranstea, ikasle etorkinek gure erkidegoko hizkuntzak ez ezagutzea eta

guk geuk jatorrizko hizkuntzak eta kulturak ez ezagutzea.

### **1.3.- Ikastetxearen barne-analisisa**

Ikasleengan eta familiengan (geroz eta jatorri eta konposizio anitzagoak) azkeneko urteetan izandako aldaketen ondorioz, ikastetxeak erantzun orokorragoa eman behar zuela planteatu zuen. Nolanahi ere, besteak beste, familien eta auzoaren partaidetza behar zen. Helburu nagusia aldaketa horiek eta, orokorrean, gizarteak sortu dituen eskaera berriei erantzuna ematea litzateke.

Ildo horri jarraiki, 2006-07 ikasturtean ikastetxeak Ikaste Komunitateen Proiektuan sartzeari erabaki zuen, ikasleei erantzun orokorragoa, parte-hartzaileagoa eta gehiago barneratzen duena eskaintzeko.

Azkeneko alderditik, inklusibitate ikuspegitik alegia, abiatuta, gure Komunitateak alderdirik garrantzitsuenak aztertu ditu, bai duten garapen positiboarengatik, bai eskaintzen duten hobekuntza-aukerarengatik.

Ibilbide positiboarengatik honako alderdiak nabarmendu nahi genituzke:

- Ikastetxea ikasleen adinarekiko, arrazarekiko, gizarte-klasearekiko, sexu-orientabidearekiko, generoarekiko, ezintasunekiko edo lorpenekiko diskriminazio oro murrizten saiatzen da.
- Ikasleen aniztasuna ikasle guztiak pertsona bezala garatzeko laguntza modura baloratzen da.
- Ikastetxeak aukera ugari eskaintzen ditu familiek beren seme-alaben prozesua eztabaidatzeko, baita kezkak azaltzeko ere.
- Era berean, familiek parte hartzeko aukera ugari izan ditzaten lanean aritzen da. Edozelan ere, eskolako praktikei buruz behar bezala informatuak egon behar dute. Familiek, orokorrean, irakasleekin komunikazio ona dagoela sentitzen dute.
- Irakasleak mota guztietako baliabideak eta laguntzak ematen saiatzen dira, ikasgelan ikasten dela bultzatzeko.
- Beren ahaleginarekin eta edozein arlotan ikasi ahal izateko, ikasle guztiei motibatzen zaie.
- Ikasleek ikastetxean lagun onak dituztela eta asko ikasten dutela sentitzen dute.
- Ikastetxea ikasle, familia eta Komunitateko kideentzat eroso da.

Beste alderdi batzuetan hurrengo ikasturteetan lanean jarraitu beharko litzateke. Alderdiak, besteak beste, hurrengoak lirateke:

- Bizikidetasunaren gaian, ikasleen arteko tratuan errespetua areagotzea.
- Ikasleen, irakasleen eta irakaskuntzan ez diharduten langileen artean diskriminaziorik gabeko tratua lortzeko lanean jarraitzea, ikastetxean bakoitzak egindako lana alde batera utzita.
- Ikastetxeko azpiegitura zehatzen egoera hobetzea, erosoagoak suertatzeko.
- Zailtasun-egoeratan familiak bere seme-alaba laguntzeko moduari dagokionez, ikastetxeak informazio argia eskaintzea.
- Komunitateko erakundeekin komunikazioa areagotzea, gure hezkuntza-eredua ezagutu dezaten eta ingurunean ondorioak balora ditzaten.
- Hezkuntza-komunitateak antolatutako jardueretan parte hartzen duten talde desberdinen lankidetzara aditzera ematea.

Alderdi horien inguruko lana ikastetxeak antolatuak dituen egituretatik (batzorde mistoak) bultzatuko litzateke. Horiei Ikaste Komunitateen ametsen lehentasunetatik sortutako alderdiak erantsiko zaizkie.

## **2. Gure hezkuntza-komunitatearen printzipioak:**

Gaur egun gure gizartean erronka eta behar handiak daude. Erantzuten saiatzeko gure ikastetxeak hurrengo printzipioak definitu ditu:

- **Kalitatezko hezkuntza pertsona guztientzat:** eskola gaitasunak garatzeko funtsezko espazioa da. Horretarako, "IKT ereduazko ikastetxea" proiektuaren barruan ikastetxeak informazio- eta komunikazio-teknologiaren (IKT) aldeko apustua egiten du. Halaber, gure eskola-komunitateko eragile guztiek "**Ikas Komunitateen**" proiektuan parte hartzearen alde dago.
- **Bizikidetasuna hobetzea:** eskola elkarrizketaren gaitasuna garatzeko orduan, gizarteratze-espazioa da.

Xede horrez, gure ikastetxeak **Bizikidetasun Plana** definitu du eta ikastetxearen bizikidetasunari buruzko **behatokia** sortu du.

Era berean, bizikidetasuna hobetzeko, ikastetxean **kultura arteko proiektua, hizkuntza sendotzeko** proiektua eta **harrera-plana** ditugu.

- **Garapen iraunkorrerako hezkuntza bultzatzea.** Horretarako, ikastetxe bezala **Eskolako Agenda 21** garatzea erabaki dugu. Ikastetxearen eta bere ingurunearen gizarte- eta ingurumen-egoera hobetzearen aldeko guztion ekintza-plana da.
- **Desberdintasunak gainditzea:** berdintasunaren aldeko apustua egin behar da. Horren barruan kokatzen dugu gure **Tutoretza Plana**. Desberdintasunak gainditzearen erronkan sartuta, **erakunde** anitzen (ikasleak, familiak, irakasleak eta ingurunea) laguntza dugu. Horiek ikastetxearen komunitatearekin lankidetzan dihardute. Halaber, laguntza-taldea (aholkularia, PT) hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzat garatzen ari den proiektua dugu. Hala, eskola plural eta anitzerantz eboluzionatzen ari gara. Horrek, batetik, gizarteratzeko erraztasunak eskainiko ditu eta, bestetik, inguratzen gaituen gizartearen ispilua izango da. Laburbilduz, eskolan guztiek bere lekua izango dute eta **barneratzailea** izango da. Murgilduta gauden **"Ikas Komunitateak"** proiektuak gure Komunitatean honako erronkak hobetzen eta gainditzeko laguntzen du:

### 3. Helburuak

1. Ikastetxearen nortasun oinarriak mantenduz, **Ikas-komunitateen filosofia** aurrera eraman ikasleen gaitasunak garatzeko, gizartetik datozen eskaerei aurre egin dezaten.
2. Hezkuntza-komunitate guztiaren beharrei erantzuteko ikastetxeko jolas-guneak moldatu.
3. Hizkuntza-gaitasunak indartu eta erabilera bultzatu gela barruan nahiz kanpoan, euskara eskolaren ardatza ezarri.

4. Ingurumenaren hobekuntzarekiko konpromisozko jarrerak landu eta baloratu.
5. Munduari irekitako eskola integratzaile eta errespetuzkoaren alde lanean jardutea; hala, emozioak, baloreak eta bizikidetasun-arauak landu.
6. Eskola berriztatzailea, aktiboa, sormenezkoa eta motibagarria sortu, non denok era bateratuan erantzuten diegun eguneroko betebeharrei.

#### **4. Lerro pedagogikoa**

Gure ikastetxeko lerro pedagogikoak azaltzeko, alderdi garrantzitsuenak honakoak dira:

- ❖ DENON ARRAKASTAREN BULTZATZAILEA: gure ikasleen apendizaiak eta garapen orokorra ahalik eta gehien bultzatzen ditugu. Horretarako, norberaren ezagutzak eta ikasteko erak baloratu eta onartzen dira.
- ❖ EUSKARA BULTZATZAILEA: euskararen ezagutza eta erabilera areagotzen ditugu komunikazio esparru guztietan, eta eskolako hizkuntza guztien ikaskuntza birpentsatu.
- ❖ PARTEHARTZAILEA, INKLUSIBOA ETA ELKARRREKINTZAREN BULTZATZAILEA: Interakzioak eta lan kooperatiboa bultzatzen ditugu ikasleen artekoak, eta hauen eta komunitatearen beste partaideen artean.
- ❖ DIALOGIKOA: Elkarrizketa erabiltzen da ikaskuntza bultzatzeko eta elkarbizitza erregulatzeko, baloreak eta sentimenduak kontuan hartuz.
- ❖ AUTOKRITIKOA:

Ebaluazio profesionala bultzatu nahi dugu, eskola gero eta hobeagoa lortzeko. Horretarako ikasleen emaitzak aztertzen ditugu, eta irakasleei nahiz ikasleei zuzendutako proposamenak egiten dira.